

KONTROL MOZIOA, LILATOIAREN ORDUTEGIA DELA ETA

EH BILDU eta IRABAZI - GANAR DONOSTIA taldeetako Naiara Sampedro eta Amaia Martín zinegotziek, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkezten dute Udaltzarak azter dezan. 2016eko martxoko eta 2017ko otsaileko Zerbitzu Orokorren Batzordean Lilatoiaren ordutegiari buruz aurkeztutako interpelazioen ondorioa da mozio hau.

JUSTIFIKAZIOA

1990ean Donostiako Koordinadora Feministak emakumeentzako Lilatoia, 5 km-ko lasterketa, antolatu zuen. Aldarrikapenak argiak ziren: sarien berdintasuna, emakumeak kirola kalean egitera animatzea eta lasterketa mistoetan parte hartzeko bultzada izatea.

Ordutik 28 urte igaro dira eta lasterketa sendo eta ezagun bihurtu da, emakume askorentzat kirolean lehen urratsak emateko erreferentzia bilakatu.

Urtez urte, lasterketa honetan parte hartzen duten emakumeak gero eta gehiago dira. 2015ean 4.000 korrikalari izan zituen eta aurten 5.000 izen ematerekin itxi behar izan dute zerrenda.

Baina emakumeen erreferentzia izateaz gain, oro har, gizonezkoena eta familia osoarena izatea ere lortu du. Lasterketako egunak Donostiari ematen dion kolore moreak berdintasun bidean egin beharreko pauso guztiak ere aldarrikatzen ditu.

Urtero, Lilatoia goizeko hamaiketan izan da. Ordu egokia da emakumeek kontziliatu ahal izateko, zer esanok ez hainbat herritatik gerturatzen diren emakumeentzat, baita hiriko jarduera nagusia bilakatzeko ere.

Joan den urtean, Lilatoiaren hasiera ordua 11:00etatik 10:00etara aldatu zen, hiriko trafikoari kalterik ez egiteko argudioa erabiliz. Berdintasunaren aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluaren kexa bat igorri zitzaion Mugikortasuneko zinegotzi ordezkari Pilar Aranari eskatzeko hasiera ordua 11:00ak izaten jarraitzea. Ordu horri eusteko arrazoiak agerikoak dira: erraztasunak ematea Lilatoian ahalik eta emakume gehienek parte hartzeko. Izan ere, emakume gehienek, oraindik ere, zailtasunak izaten dituzte bizitza pertsonala eta zaintzari eskaintako denbora uztartzeko.

Azken urtean, Berdintasun Kontseiluan behin baino gehiagotan mahai gaineratu den gaia izan da. Aurten ere, otsaileko erregistroz, Berdintasun Kontseiluko Lehendakariak, Donostiako Emakumeen Etxea Elkarteak eta Plazandreok-ek Lilatoia 11:00etan mantentzearen eskaera luzatu dute.

Aipatutako batzordeetan jasotako erantzunak eta eragileen eskaerak aintzat hartzen ari ez direla kontuan hartuta, Udalak milaka emakumeren parte hartzea ez duela erraztu nahi dirudi. Berdintasunaren bidean atzerapausoak onartezinak direnez, EH BILDU udal taldeak eta IRABAZI – GANAR DONOSTIA udal taldeak honako **mozio** hau aurkezten dute:

1. Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Lilatoiaren ordutegia 11:00etan mantentzeko, emakume askorentzat kirolean lehen urratsak egiteko erreferentzia izaten jarraituz eta berdintasun bidean ematen den festan parte diren herritar guztion antolakuntzarako erraztasunak bermatuz.

Donostian, 2017eko otsailaren 17an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia
zinegotzia

Amaia Martin Garin
Irabazi Donostia udal taldeko
bozeramailea